

Funtsezko jarduerak

Aurrez esan dugun bezala, gure zerbitzuaren helburua maskoten ongizatea eta pertsonen bakartasuna gutxitzea da, batez ere adineko pertsonena. Horretarako, balio-proposamena eguneroko jardura zehatzen bidez eramango dugu aurrera.

Lehenik eta behin, maskoten zaintza eta ongizatea izango da gure lanaren oinarria. Maskotek janaria, garbitasuna eta arreta emozionala behar dute egunero. Gainera, albaitariaren jarraipena egitea ezinbestekoa da, aurrez azaldu dugun bezala, gure zerbitzua segurua eta kalitatezkoa iza. Jardura hauek egunero eta modu jarraituan egingo ditugu.

Bigarrenik, bezeroen arreta eta esperientzia izango da gure helburu nagusietako bat. Lehenago esan dugun bezala, gure lokala Bilboko erdigunean egongo da, eta horrek bisitari asko jasotzeko aukera emango digu. Horregatik, garrantzitsua da lokala garbi, atsegin eta antolatua mantentzea, bezero guztiak gustura egoteko.



Hirugarrenik, komunitatearekin harremana eta ekintza sozialak ere gure proiektuaren parte izango dira. Aurrean aipatu bezala, gure helburua ez da soilik zerbitzu bat eskaintzea, baizik eta gizartearentzat erabilgarria izatea. Horregatik, tailerrak, adopzio-kanpainak eta adinekoentzako saio bereziak antolatuko ditugu.



Azkenik, komunikazioa eta marketing-a izango dira gure jardura osagarriak. Sare sozialetan, konkretuki tiktoken (www.tiktok.com/@txakur.katuak) argazkiak, bideoak eta informazio erabilgarria partekatuz, bezero gehiagorengana iritsiko gara. Gainera sites bat edukiko dugu informazio orokorra emateko (<https://sites.google.com/elregato.com/txakurkatuuak/inicio>). Honek lagunduko digu gure zerbitzua ezagutarazten eta komunitate aktibo bat sortzen.

Aipatutako jardueren artean, lehentasun hauek ezarriko ditugu:

1. Maskoten ongizatea eta segurtasuna

Lehenengo lehentasuna izango da beti. Aurretik azaldu dugun bezala, maskotek gustura egon behar dira, gure proiektuaren erdigunea direlako. Ongizate emozionala eta fisikoa zainduz, zerbitzua fidagarria eta errespetuzkoa izango da.



2. Bezeroaren esperientzia hobetzea



Gure bigarren lehentasuna bisitariek giro atsegina eta segurua sentitzea izango da. Aurretik aipatu dugun bezala, gure zerbitzua bereziki erabilgarria da bakarrik dauden adineko pertsonentzat, eta horregatik garrantzitsua da haientzako arreta berezia eskaintzea.

3. Komunitatearekin lotura eta gizarte-ekintzak

Gure proiektuak izaera sozial handia du, beraz, gure hirugarren lehentasuna ekitaldiak, tailerrak eta adopzio-kanpainak antolatzea izango da, herritarrek gure ekimena berea sentitzea eta parte hartzea bultzatzeko.